

Merktaritzea elektronikoa zifra ekonomikoetan haziz darrai 2016an Euskal AEn

Salmenta elektronikoen %80 ia, enpresa artekoa (B2B)

Aurreko urtearen aldean %11,7 gehitu ziren Euskal AEko enpresetan merktaritzea elektronikoen bidez egindako salmentak; erosketak %10,1, Eustaten arabera.

Arabaren gehitu dira gehien bai erosketak (%15,8), bai salmentak (%15,3) 2016an. Gipuzkoan %10,7 eta %10,3. Bizkaian %7,9 eta %9,8.

1. taula: Merktaritzea elektronikoa bidez egindako erosketak eta salmentak, lurraldearen eta enplegu-geruzaren arabera

	Erosketak (*)			Salmentak (*)		
	2015	2016	%	2015	2016	%
Euskal AE	10.518,0	11.581,3	10,1	13.732,6	15.341,0	11,7
Lurralde historikoa						
Araba/Álava	1.767,1	2.046,8	15,8	4.376,4	5.046,9	15,3
Bizkaia	5.426,5	5.853,8	7,9	4.975,8	5.463,8	9,8
Gipuzkoa	3.324,4	3.680,7	10,7	4.380,4	4.830,3	10,3
Enplegu-geruza						
0 - 9	3.347,8	3.863,6	15,4	2.523,8	2.798,7	10,9
≥ 10	7.170,2	7.717,7	7,6	11.208,8	12.542,3	11,9

(*) Euroak, milioikotan

Iturria: Eustat. Informazioaren gizartearen inkesta. Enpresak

Salmenta elektronikoa, lurraldeka: Bizkaian Erkidegoko guztien %35,6; Gipuzkoan %31,5; Araban %32,9. Erosketa elektronikoa 2016an: Bizkaian guztien %50,5; Gipuzkoan %31,8; Araban %17,7.

Establezimenduen tamainari erreparatuta, 10 enplegatu edo gehiagokoek lortu zituzten emaitza nagusiak merktaritzea elektronikoen erabileran, salmenten %81,8 eta erosketen %66,6.

2016an merktaritzea elektronikoa ari diren enpresa portzentajea, %26,0, ehuneko -0,4 puntu aurreko urtearen aldean. Sarearen edo bestelako sistema elektronikoen (EDI etab.) bidez sortutako negozio-bolumena, 15.341,0 milioi salmentetan, 11.581,3 erosketetan.

Zifra ekonomikoetan salmenta elektronikoen erosketenaren oso gainetik dago, baina bide elektroniketatik erosten duten enpresak (%24,0) saltzen dutenak (%6,5) baino askoz gehiago dira.

2. taula: Merkataritza elektronikoa egiten duten establezimenduen bilakaera %

	Establezimenduak guztira															
	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Salerosketa elektronikoa	3,0	4,4	5,1	7,7	10,5	12,8	15,3	15,0	14,9	15,1	17,3	19,7	21,6	24,8	26,4	26,0
Erosketak	2,7	3,6	4,3	6,9	9,6	11,4	14,1	13,9	13,8	14,2	16,1	18,0	19,7	23,1	23,9	24,0
Salmentak	0,4	1,3	1,4	1,7	1,9	2,9	3,6	3,4	3,4	3,9	4,1	4,6	5,2	6,0	6,5	6,5
Erosketen gaineko (*)	9,6	11,4	17,4	15,2	15,5	18,2	20,7	22,6	24,9	28,1	30,8	33,7	29,4	30,6	31,3	33,3
Salmenten gaineko (*)	9,9	16,1	20,6	22,0	24,6	24,4	23,1	26,9	32,5	38,6	39,3	36,6	35,9	38,9	36,8	35,1
	10 langile edo gehiago															
Salerosketa elektronikoa	6,4	10,0	10,9	13,6	19,5	20,4	24,0	22,2	23,7	23,1	24,9	27,7	27,5	28,8	30,0	29,7
Erosketak	5,1	8,3	8,7	11,2	17,3	17,7	21,4	19,1	20,2	20,3	21,4	23,6	23,4	25,0	25,3	25,8
Salmentak	1,8	2,8	3,7	4,2	5,1	6,4	7,8	8,0	8,0	8,5	9,8	10,4	10,0	10,8	11,4	11,9
Erosketen gaineko (*)	4,6	10,6	9,6	12,1	10,3	12,6	15,8	15,3	20,3	24,6	30,8	33,7	27,0	28,3	31,0	30,7
Salmenten gaineko (*)	12,7	13,4	15,5	15,0	19,4	21,7	31,5	28,6	34,2	38,4	40,9	42,8	36,2	37,8	42,6	42,1

(*) Merkataritza elektronikoa egiten duten establezimenduetan, erosketa eta salmenta guztien gaineko erosketa eta salmenta elektronikoen batez besteko %

Iturria: Eustat. Informazioaren gizartearen inkesta. Enpresak


42.900 inguru dira Euskal AEn merkataritza elektronikoa ari diren establezimenduak. Establezimendu horiek bide horretatik egindako erosketak guztien %33,3, eta salmentak, guztien %35,1.

Zifra hauek aldatu egiten dira enpresen tamaina kontuan hartuz gero. 10 langile edo gehiagokoek, %29,7k egiten dute merkataritza elektronikoa; aurreko urtearen aldean ehuneko 0,3 puntu gutxiago. Segmentu honetan ere, erosketak egiten dituztenak askoz gehiago dira, %25,8; salmenta egileak %11,9 dira. Azken urtean ehuneko 0,5 puntu gehitu dira biak.

Euskal enpresen %26k merkataritza elektronikoa egin zuen 2016an, 2001ean baino ehuneko 23 puntu gehiagok. Aurrerapena ez da oso ezberdina establezimenduen tamainaren arabera, baina bai erosketen (azeleratuago) eta salmenten artean; salmentak gehiago gehitu dira 10 langile eta gehiagoko establezimenduetan. Hauetan, salmenta elektronikoa egiten dituztenen artean, berauek guztien %42,1 ziren 2016an.

Salmenta elektronikoa %48,8 posta elektronikoz (e-mailez) egin dira; %30,4 EDI eta beste sare batzuen bidez; %20,8 web orritik. Salmentak: %43,9 EDI eta beste sare batzuen bidez, %28,6 e-mailez eta %27,5 web orri, aplikazio edo internet atarien bidez.


1. grafikoa: 2016ko salmenta elektronikoak, erabilitako bitartekoaren arabera (%)



Iturria: Eustat. Informazioaren gizartearen inkesta. Enpresak

2016an merkataritza elektronikoa bidez egindako salmenten bezero-motari dagokionez, salmenta guztien %78,9 beste enpresa batzuetara saldu zen (B2B deritzon merkataritza), %20,1 kontsumitzaile partikularrei (B2C) eta %1,0k bestelako helburuak izan zituen, esaterako, administrazio publikoak (B2G).

2. grafikoa: 2016ko salmenten helburua, bezero-motaren arabera (%)



Iturria: Eustat. Informazioaren gizartearen inkesta. Enpresak

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz
Prensa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62